



uztarria

Azpeitiko herri aldizkaria

BASILIKA ITXITA 2001 ETA 2002-AN

Barruko kupula eraberrituko da
eta eragin handia izango du turismoan

udala

EH eta EAK udal
aurrekontuen
balorazioa
plazaratu dute

gazteak

Gazteok
Zer?!-ek gazte
gunearen
proposamena



elkarrizketa

Amaia Garmendia:
«Elizkalin oindik
balkoitik balkoira
hitzeite'a»

COOP

Legarda

Arana 7 • 20730 Azpeitia
Tel.: 943 81 23 09 Fax: 943.15.73.78
E-mail: coop@legarda.com
<http://www.legarda.com>



SUKALDEAK · BAINUAK



BERLONI - ren Banatzaile Ofiziala

ZURE ASEGURUAK BERRITZEKO... LEHENENGO, GALDETU

TEL. 943 15 70 60



MAPFRE

DEITZEAGATIK BAKARRIK, OPARIA DAUKAZU

- | | |
|--|---------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> BIZITZA ASEGURUAK | <input type="checkbox"/> AUTOAK |
| <input type="checkbox"/> JUBILAZIORAKO | <input type="checkbox"/> ETXEBIZITZAK |
| <input type="checkbox"/> AUTONOMOENTZAT | <input type="checkbox"/> NEGOZIOAK |



LOIOLABIDE, 11 - 20730 AZPEITIA

«Euskara berreskuratu behar badugu, abertzaleok eredu izan behar dugu» (Juan San Martin)

ale honetan...

4-5-6: Alaitz Olai- zola, Jabier Altu- na, Amagoia Iba- nen iritzia. Ando- ni Salegiren ma- rrazkia.

7: Presoen alde- ko plataforma berriro abian da. Emakumeak pre- soen eskubideen alde itxita.

8-9: EH eta EAK prentsaurrean 2000. udal aurre- kontuen balora- zioa aurkeztu dute.

13-14-15: Gazteok Zer ?!- ek Gazte Gunearen propo- samena udalera bideratu du.

16-17-18-19: Erreportaia. Loiolako basilika itxi egingo da eraberritze lanak direla-eta.



22: Kontseilua Azpeitian izan zen. Plan estrate- gikoa azaldu zuen Juan Mari Larrartek.

23-24-25: Xoxoteko eguna eta zuhaitz lan daketa Takolo hogeit urte Eve resten izan zela



28-29: Maiatzeko agenda Larunbatez Jolas eta Gazte Astea aste santuko opo- rretan



30: Elkarrizketa. Amaia Garmendia: «Lehen gitarrie starluxeko puntu- kin lortu nun»

AKUILLA

Mendizaleak eta menditarrak



Fernando Morillo

Idazlea

L agun baten teoria bit- xiaren arabera, mendi- zalea, mendia gozaten eta errespetatzen duena da. Menditarrak berriz, berea balitz bezala tratatzen du, inoiz onartuko ez lukeen arren. Orain egun batzuk, Xoxoten nenbilela, motorista bat pasa zen nire albotik egundoko zarata atereaz eta alboko baserri bateko animalia guz- tiak aztoratuz. Handik pixka batera, berriro pasa zen. Eta berriro ere. Han zebilen beste mendizale batek eta nik elkarri begiratu genion. Ez zen hitzen beharrik egon jakiteko nondik sartuko geniokeen tipo hari motorra.

Hurrengo pasaldian, elasti- koa ikusi genion. Xoxote irudi- katurik, «Utzi bakean» zioen hura zen. Utzi bakean... Batzuetan gizatasunaz dimitit- zeko gogoia ematen du, eta basapizti bezala emateko izena. Odola behintzat odola izango litzateke, eta ez itxura- keriaz egindako likido zikina.

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA



☎ 81 53 35

Argitaratzailea: Uztarría Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza 4, 2. ezkerria; Telefonoa: 150358 (berria da)
Posta kutxa: 227, Azpeitia
Publizitatea: Tel: 150358-852859
Posta elektronikoa: Uztarría@hotmail.com
Inprimategia: Zubi Grafikak
Tirada: 1.500 ale
Lege gordailua: AS / 6 / 08255 / 1999

UZTARRIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

amuko Zubitik



Topo zaborrarekin



Alaitz Olaizola

Bi hilabetetik behin iritzi artikulu bat idazteko gonbidapena pasa zidatenean, ea zeri buruz aritu beharko nintzen galdetzean, herriarroi ikutzen zigun gairen bat jorratzea zela ideia jakinarazi zidaten. Nik, badakit zuzenki herriaz ez herriari dagokion ezertaz ez naizela aritu orain artean, orokortasunak dena biltzeko gaitasuna badu ere.

Hala ere, oraingo honetan, premiazko gaia deritzotenez aritzeko beharrean aurkitzen naiz. Sinetsiezaidazue ez naizela bila aritu, non topatuko akatsa, saltsa edo bronka baina

nahigabeen topo egin dut zaborrarekin, eta zaborra diodanean, *zaborraz* ari naiz, astelehen goizero Goenako kanpan, aterpetxe inguruan, ikastola atarian zoritxarrez jaso beharrean aurkitzen garen zaborraz. Puritanoenak «*cosas de hombres*» deitzen diete, kultoek antisorgailuak eta gu bezalako jende arruntak kondoiak. Batzuk, mukizapietan biltzeko ardua hartu arren, lurrera botatzen dituzte. Beste batzuk, korapilotxo bat egiteko kortesia dute eta gehientsuenak, luze-luze paper mordo baten ondoan lurrean zabaldua uzten di-

tuzte. Deskuidatzen denik ere bada eta izen abizenak jartzen dituen jadanik beharrezkoa ez zaien txartel edo paperak uzten dituzte ondoan. Hilabeteren buruan, astero jasoko ez balira, zabortege berriak izango genituzke herrian, dugun bakarrarekin nahikoa izango ez bagenu bezala. «Ahal duenak baino gogoia duenak gehiago egiten omen du». Ba, gogoia baino ez zaiguk/n falta bazterrak txukunago izateko.

Ah! Ez bazenekiten ere, Control eta Durex dira markarik erabilienak eta tamalez, gure bazterrak gehien zikintzen dituztenak.

gutunak

Edertasunaz

Bi lagun hil zaizkit oso denbora gutxian. Manutoren hiletetan ikusi nuen Botikas azkeneko aldiz, bihar izango dira hiru aste. Manuto bezalaxe, Botikas ez dut gehiago inoiz ikusiko.

Ez ziren ez bata ez bestea, ez Manuto eta ez Botikas, gizarte honetan aise eta eroso egokitzen direnetarik, ez horixe! Nork bere mundu-ikuskerara propioa zuten, baina ez batarena eta ez bestearena zen telebistako iragarkietakoa; ezta hedabideetakoa ere, ez eskuineko egunkari erraz eta populistetakoa eta ez ustez aurrerazale direnetakoa. (...)

Zerua urdin delarik esan ohi dugu egural-

dia *ederra* dela, baina egunero zero urdinik desiratzen ez duteneta-zen Botikas.

Juan Luis Zabala

(Egunkaria-n 2000ko apirilaren 18an)

Zeruaren koloreaz

(...) Horretarako aitzakia eman didala J.L. Zabalaren zutabeak, non esaten baita: «Egunero zero urdinik desiratzen ez duteneta-zen Botikas». Beharbada oso ongi emango du esaldi horrek literatura egiten eta irakurtzen dutenen bistan, ez dakit, baina dakidana da nire lagun txit maite eta txit ernegagarri Botikasek egunero (sic) desiratzen zuen zero urdin garbi hura bezain gezur gar-

datuak

INEM-ek emandako datuen arabera, martxoan Azpeitian %3ko langabezia eman zen; hau da 686 langabetu zeuden INEM-en izena emanda.

bia dela. Eta hemen inporta duena ez da pertsona jakin baten gus-tua, baizik-eta zero zabalaren kolorea: hots, gure moduko txepelek bezala, zenbaitek ez diola beldurrik zero urdin zero-kolorekoari, eta ezta haren azpian nola deritzan ez dakigun hura kendu zigun bizia madarikatzeari ere.

Senide maiteok: pasioa eta ezbeharren es-

tatistika santuak ospatzen dira aste honetan, aditzera eman nahi dituzt J.J.J.I. Botikas zena, apirilaren 14an hilik geratu zen neurrigabe-ko gizona, nik deklaritzen dudala eta izendatzen zero garbi baten azpian benetan bizitzeko edo benetan hiltzeko potrorik ez dugun txepel guztion zaindari.

Iñaki Seguro

(Egunkaria-n, 2000ko apirilaren 20an)

Martxialeneko keiez

Beldurtuta geratu nintzen oin pare bat aste Martxial Ucinek bota zun keiez. Behin'e baño geyo bota zun. Uste nun ohitute eon ber genule azpeitiarrok...

Iñaki Odriozola

UZTARRIAREN oharra: gutunak, ahal dela, motzak izan behar dute, bestela UZTARRIAK mozteko ahalmena izango du. Kartak bidali hona: UZTARRIA, 227 posta kutxa, Azpeitia. Edo, UZTARRIA, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre. Edo, posta elektronikoa honetara: uztarrria@hotmail.com

azketako ura



15,
15,
15

Jabier
Altuna



Orain dela urte batzuk, Azkoitiko alkateak «hiru, hiru, hiru» esanez hasiera eman zien Andramaxei. Normala iruditzen zait lagun artean adarra jotzea, baina alkateak udaletxetik festei hasiera era horretan ematea ez da oso elegantea.

Baina beste pike hau guztiz ezberdina da. Izenburu honekin Realak eta Bilbok (barkatu, Athleticek) jokatu berri duten derbia aprobe txatu nahi dut eta gogorarazi 15 jarraian direla galdu ez ditugun partiduak. Urte osoan izugarri sufritu dut Realaren egoerarekin; ordea, joan nintzen derbira.

Neure burua nahiko ekilibratutzat daukat, baina partidu ondoren neure buruari galdetu nion normala al den partidu batengatik horrela jartzea. Galdu ezker, neure burua engainatzeko arrazoi mordo pentsatua nuen. Etiopiako egoera, euskal politikaren folloia, inflazioa dela-eta interesak altxatzen ari zaizkigula, jokalariek milioiak irabazten dituztela... Anoeta kanpoan zain, mutil txiki atzeratu bat pasa zen Bilboko, barkatu, Athleticeko kamiseta, txapel izugarria, bandera... «Realak galtzen badu, mutiko hori izugarri poztuko duk», pentsatu nuen. Baina

badakizue irabazi genuela. «Atzeeeeetik!» eta antzeko garrasiak botata (hau idaztean zoritxarrez aurretik doazela onartu behar), ume txikiak bezala saltoka, garraixika... Ni bezala guztiak.

Normala al da futbol partidu ziztrin batengatik milaka pertsona horrela jartzea? Erromatarrek esaten omen zuten herria pozik izateko ogia eta zirkoa ematea nahikoa zela. Itxuraz oraindik berdin jarraitzen dugu. Batzutan izugarria iruditzen zait; beste batzutan, denok behar dugula eskaperen bat uste dut. Batik bat, 3-1 irabazi ondoren Bilbori, barkatu, Athletici.

otSO beltz

Andoni Salegi



gaia emanda

Albistek

Nere bertsotan egin nahi nuke bi albisten aipamena. Jakina dugu abian dela Euskararen Hitzarmena. Eginez hainbat saio herria lotu zaio, ta badut itxaropena hau sinaturik lortuko dela herriak falta duena.

Bertso bateko pozak badakar bestearentzat tristura agintariak zuritu dira gure gazteen kontura. Gotzon berriz zulora gaizkileen ondora, justiziaren putzura Beste batzuek izan dezaten eman nahi duten itxura.

Leire Ostolaza

Arantzazutik Loiolako Enparantzara

Gaur egun denok ezagutzen dugun Arantzazuko santutegia eraikitzen hasi zen garaian —1950eko irailaren 9an ezarri zuten lehen harria— ni jaiotze gabe nengo. Beraz, egitasmoak sortu zuen eztabaidaren oihartzunik ez nuen zuzenean ezagutu. Zuzenean ezagutu nuen, gurasoei esker, abangoardiako hainbat artistak egindako lan ederren izan zen. Ez dakit noiz izango zen zehazki, baina bai oso txikia nintzena.

Horrela, zenbaitzuntzat «modernoegia» omen zen eliza hura erabat «normala» bilakatu zen niretzako. Bai behintzat lehendik ezagutzen nuen Loiolako basilika «klasikoa» bezainbeste. Diferenteak ziren biak, bai, baina biak artez jantzita-ko eliza.

Izaera berritzailea, artista abangoardisten esku lehiaketa publiko bidez utzia, erlijioa garaiko gertaera sozial eta politikoe-kin lotua azaltzen zuena... ezaugarri susmagarriak zituen, argi da, proiektu hark. Baina lepoa jarriko nuke, eta gehiegizko atrebentzia izango da agian, Arantzazuko proiektua aurrera-koiegia izateagatik ar- buiatu zutenek ere gaur egun ezin luketela santu- tegia beste modu batera

irudikatu. Gure aurriritzei buruz zer hausnarturik eman behar liguke horrek.

Gipuzkoako Diputazio- ak Loiolako basilika atar- rian jarri berri duen Eduardo Txillidaren es- kultura dela-eta dakarkit gogora Arantzazu; erai- kuntza miragarri horrek erakutsi baitzidan bere garaian artea, abstraktoa izan ala ez, gure sentsibi- litatea laztantzeko bide bat besterik ez dela, eta pertsonak adina mundu ikuskera eta sentsibilitate daudela laztantzeko.

Arantzazukoari esker ikasi dut baita pertsonak eta bizimodua aldatzen doazen heinean artea aldatuz doala ere, eta beste arloetako aldaketak bezain natural hartu behar genituzkeela arte mundukoak.

Loiolan artelan ez figu- ratibo bat ikusteak ez nauela asaldatzen, alegia, eta berdin dit zein den egilea. Atsegin izan- go dut ala ez, baina ez nau asaldatzen. Egunero edozein irrati kate jarri eta entzundako abestien ar- tean gustuko ez ditudan batzuk egoteak asalda- tzen ez nauen bezala. Inoiz ez dut horregatik zal- lantzan jartzen entzuten dudana, gustokoa izan ala ez, musika denik.

Behin hori argituta, asaldatzen nauena azal-

ARTEA

Artea, abstraktoa izan ala ez, gure sentsibilitatea laztantzeko bide bat besterik ez da, eta pertsonak adina mundu ikuskera daude

TXILLIDA LOIOLAN

Loiolan artelan ez figuratibo bat ikusteak ez nau asaldatzen. Atsegin izango dut ala ez, baina ez nau asaldatzen

AGINTARIAK

Artea benetan maite baldin badute, artea normaltasun batean ekoiztu eta ezagutarazte- ko bideak jarri behar lituzkete

duko dut. Azpeitian azken urte luzeetan eskultura bakar bat ere jartzeko asmorik azaldu ez duten gure herriko agintariak komunikabide guztietan artezale amorratu plantak egiten ikusteak asalda- tzen nau, gure agintarien lana ez baita, nik dakida- la, argazkietan plantak eginez ateratzea.

Eta artea benetan maite baldin badute, artea benetako normaltasun batean bizi dezagun nahi badute, normaltasun ba- tean ekoiztu eta ezaguta- razteko bideak jarri behar lituzkete, artista berriei euren lana herritarrei era- kusteko zubiak eskainiz.

Horretan gastatu behar litzateke diru publikoa, herrian artelanak jartzea erabakiko balitz beti ere, ekitaldi handi-mandi eta hitzaldi hutsalak alde batera utzita: lehiaketa publiko bitartez aukera- tzen eta saritzen denok ikusi beharreko artelanak, ezagun zein ezezagun, gazte zein zahar, abango- ardiako zein klasiko izan lehiara aurkeztutako artis- tak. Guztiok baitugu laztantzeko eta laztanduak izateko eskubidea, baita gustu diferenteak edukita ere. Guztion gustua baita aldamenekoarena bezain sana eta ederra, baita artean ere. Eta hori ikas- teko inongo santutegira joan beharrik ez dago.

Amagoia Iban

Egunkaria-ko kazetaria

Presoen alde abian

Presoak Euskal Herrira plataformak lanari berrekingo dio

► Plataformak apalaldi baten ondoren berriro ekingo dio lanari ► Eskakizunak aurrera eramateko gizarteko sektore desberdinen inplikazioa eskatu dute ► Aurrerantzearen ere mobilizazio handiak antolatzeari ekingo diote

Uztarrria

Herriko Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak apalaldi baten ondoren berriro lanean ekitera doala adierazi du. Plataforma 1997an hasi zen lanean, «hasieratik gune anitza izan da eta euskal presoen gaiaren inguruan burutu ditu lanak».

Plataformak, lanean jardun duen hiru urteotan, hainbat lan eta ekintza egin ditu: «Euskal Presoen Euskal Herriratzearen alde egindako adierazpena gizarteratzeari ekin genion, herriko ia talde eta elkarte guztien atxikimenduak lortuz. Manifestazio isil jendetsu bat baino gehiago ere egin dugu herrian, plataformak deituta», esan zuten plataformakoek prentsaurrean.

Plataformako apaldiaren arrazoia ere azaldu zuten: «Nahiz eta Euskal Herrian milaka mobilizazio egin, eta gure aldetik hainbat lan, gure eskakizunak modu berezuan jarraitzen zutela ikusirik, zerbait gehiago egin beharra ikusi genuen; baina egia esatera ez



Euskal Presoak Euskal Herrira plataformako prentsaurrea.

genekien zer gehiago egin zitekeen».

Plataformak bere eskakizunak plazaratu zituen: «Euskal gizarteak eskatzen duelako, euskal presoak Euskal Herrira ekartzea, zigorraren hiru laurdenak beteak dituzten presoak eta gaixotasun larriak dituztenak kaleratzea, eta baita presoen izaera politikoa onartzea ere».

Eskakizunak aurrera eraman eta egoera aldatzeko egin beharrekoak ere aipatu zituzten: «Argi daukagu orain arte eginikoa ez dela alferrikakoa, baina baita ere eginikoa ez dela nahikoa. Gizartearen eskakizunak bete edo ez gizarteko sektore desberdinen inplikazioaren baitan dago».

Aurrera begira jarri dituzten egitekoen artean, honokoak: atxikimendua eman duten taldeen inplikazioa lortzea, *Euskal Presoak Euskal Herrira* maindirea gizarteratzea eta mobilizazio erraldoiak antolatzea. ■

Emakumeen itxialdia

Urola Kostako Emakume Feministek apirilaren 7, 8 eta 9an presoen alde Azkoitian egindako itxialdian presoen egoera aztertu eta eztabaidatu zuten; batez ere emakume presoen egoera. Horretarako, hainbat ekimen egin zituzten. Itxialdian, besteak beste, Begoña Sagarazu eta Ainhoa Crespo preso ohiek espetxe politikak eta sakabanaketak eragiten dituzten ondorioak azaldu zituzten.

Itxialdiak iraun bitartean emakumeek gose greban dauden presoei elkartasuna adierazteko kontzentrazioa, eztabaidak... egin zituzten.

LUBA
 - AHOLKULARITZA FISKALA,
 LABORALA, KONTABLEA
 - ASEGURUOK
 - FINKEN ADMINISTRAZIOA

Emparan kalea, 30
 Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
 E-mail: Luba.ase@Euskalnet.net

**CAJA LABORAL
 EUSKADIKO KUTXA**

EHk gogor kritikatu ditu

EAJk eta EAK erabilitako prozeduraren aurka azaldu da

► EHk udal aurrekontuak egiteko prozedura eta edukiak kritikatu ditu ► EHren proposamenak kontuan ez izana salatu dute ► Talde eta gizarte eragileen laguntza eskertu dute, halaber, EHko zinegotziek

Uztarrria

Euskal Herritarrok elkargotak, martxoaren amaieran EAJ eta EA alderdien onespenerekin onartu ziren 2000ko udal aurrekontuak kritikatu zituen. Udal aurrekontuak egiterakoan izan den prozedura kritikatu zuen EHk, baita edukiak ere: «Hauek ez dira EHren gustuko aurrekontuak. Prozeduran akats larriak daude, ez dugu gure proposamenak aurrekontuetan sartzeko aukerarik izan, eta eztabaidak presa handiz egindakoa izan dira, oso azalekoak», esan zuten Azpeitiko EHko ordezkariak.

Salatu zuten, EHk aurrekontuen gainean egindako proposa-

men batzuk atzera bota zituzten EAJk eta EAK, «nahiz eta proposamen batzuk onartzeko edota aurrera eramateko borondatea agertu duten». Gainera, 2000ko aurrekontuetarako EHk proposamen asko egin zituela gaineratu zuten, «eta horietako zenbait atzera bota dizkigute; baina beste gure ideia asko —hitzez bada ere— aurtengo urtean lantzeko borondatea eta interesa erakutsi dute EAJk eta EAK».

EHk uste du hainbat kontu ongi zehaztu gabe gelditu direla udal aurrekontu egitasmoan: «Horretarako baitira aurrekontuak, urtean zehar izango diren diru sarre-
rak eta gastuak aurreikusteko, eta diru mugimendu horiek guztiak ahalik eta garbien azaltzeko».

Udal aurrekontuak onartzeko egindako udalbatzan EHko taldeak ezetza eman zion proposatutako egitasmoari: «Zergatik ezetz? Aurrekontu horiek gabezia eta akats asko dituztelako», EHk azaldu zuenez. Akatsak eta gabeziak banan-banan aipatu zituzten, Barne Batzordea, Hirigintza, Kul-



EHren zinegotziak prentsaurrekoan.


tura, Gizartekintza, Euskara, Gaztedia eta Kirola batzordeak aztertuz.

2000ko udal aurrekontuen balorazioaren amaieran, Euskal Herritarrok-ek aurrekontu egitasmoak prestatzen lagundu dioten herriko talde eta gizarte eragileak «esker-tu» zituen: «Egin duguna ez da inondik ere alferrikako lana izan; bide horretatik, hemendik aurrera ere izango dugu herritarren eta taldeen laguntza eta kritikaren beharra», azaldu zuen EHk. ■

bide

**Sukaldeko altzariak
eta
horman sartutako
armairuak**

Landeta Auzoa - AZPEITIA
Tel. eta Faxe: 943 81 17 47



IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

**AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI**

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

EA baikor da aurrera begira

Inbertsioak egiteko garaia iritsi dela dio alderdi horrek

► EA baikor agertu da onartu berri diren udal aurrekontuekin ► Inbertsioak egiteko ordua dela uste du EAK ► Aipamen berezia egin zien sustapen publikoko etxebizitzei eta herrialde pobreei emango zaien diruari.

Uztarrria

Eusko Alkartasunak ere 2000. urteko aurrekontuen balorazioa eman du. EAJ eta EAren artean onartu aurrekontuen aurrean, baikor agertu ziren zinegotziak. Nekane Larrañaga Kultura Batzordeko buruaren esanetan, «aldi oparotsu hau aprobetxatu egin behar da inbertsioak egiteko, ondorengo epealdietarako azpiegitura sendoez osatua gelditu dadin herria».

Aipamen berezia izan zuten sustapen publikoko etxebizitzaren proiektuak eta udalak zuzenean jasotzen dituen sarreraren % 0,7 herrialde pobreei bidaltzeko proiektuak.



Kulturaren, aurreko legegaldian baino hogeita mila pezeta gehiago izango dituztela azpimarratu zuen Larrañagak. Kultur azpiegituretan Basazabal, San Agustin eta zine areto berriaren proiektuak aipatu zituen; herriko komunikabideetan, UZTARRIA herri aldizkariari eta Kaito Telebistari luzatuko zaien diru laguntza; eta Antzerki Topaketaren proiektua sendotzeko eta euskaren alde lan egiteko Euskara Patronatoak duen aurrekontua ere nabarmendu zituen. Bestelako ekintzen antolaketa ere aurreikusten da, Larrañagaren esane-

tan: «Euskal kultur taldeekin elkarlana bultzatu behar dugu, urtean zehar ekintzak antolatuz. Guk babesa emango diegu haien ekimenei».

Legealdi honetan sortu den Ingurugiroaren sailean, Aitor Aranguren, Ingurugiro Batzorde buruak esan zuen proiektu berri ugari egiteko daudela, horien artean EHUKo Ekologia Sailak bere gain hartu duen ingurugiro diagnostikoa, Urola ibaia berreskuratzeko plana, Izarraitz gune natural bihurtzeko proiektua...

EAK EH alderditik etorri zitzaizkien kritikei erantzuna eman zien. Alde batetik «prozedura garbia» erabili zutela berretsi du EAK. Bestetik «aurrekontuak egiteko ardura batzordeburuena izanda ere, oposizio alderdiak proposamenak egiteko aukera» badutela gogorarazi zioten EHri.

EAKo zinegotzien iritziz, «EHren proposamen asko zeharo ideologizatuak zeuden, gu herriko interesei begira ahal den irekitasun gehienarekin gabiltzan bitartean». ■



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA
ZIKLOAK

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 Fax.: 943 85 28 67
E - mail: Azkoitia@urola.hezitek.net

Perdillegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

Loiola hiribidea, 4 (Esklabak)
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 37 70 Fax.: 943 81 66 20
E - mail: Azpeitia@urola.hezitek.net



Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu



Tel.: 943 81 51 87
Loiolo-Bide, 25 - AZPEITIA

motxien

Elkarrik Alderdien Foroa kanpainaren berri eman zuen

Apirilean Elkarri gizarte mugimenduko Talde Eragileko partaide Juanjo Perezek Alderdien Foroa kanpainaren berri eman zuen Aitonenako areto nagusian. Sail berriak bake-prozesuaren inguruko gaiak jorratuko ditu: biktimak bake-prozesuan, gizartearen partehartzea, presoak edota herri-kontsulta.


Gasteizko gaztetxoak herrian bisitari ikabil-ekin

Gasteizko Arantzabela Ikastolakoak izan ziren herrian bisitari pasa den apirilean, Eusko Jaurlaritzako Ikabil programaren bidez Karmelo Etxegarai Ikastolak gonbidatuta. Ikabilek ikasleen arteko euskara harreman loturak sustatzea du helburu.

Antzerki Topaketarako lehiaketaren epea hilaren 15ean amaituko da

Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketaren kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea hilaren 15ean bukatuko da. Irabazleak 150.000 pezeta-ko saria jasoko du. Azpeitiko Kultura Batzordeak ekainean jakinaraziko du nor den aurtengo lehiaketako irabazlea.

erretratutan



INAKI URANGA

Alde Zaharreko merkatarien desfilea

Alde Zaharreko merkatariak beste behin udaberri-udako moda erakutsi eta Alde Zaharra «bizitu» asmoz herriko enparantzian desfilea antolatu zuten, apirilaren 15ean Bertara, zahar eta gazte ugari azaldu zen.

Merkatariak oso gustora agertu ziren jendeak izandako harrerarekin eta desfilea bera nola atera zen ikusita. Taula gainean herriko haur eta gazteak eta modelo profesionalak izan ziren, eta aurkezle

lanetan Klaudio Landa telebista aurkezle ezaguna aritu zen.

Atzegi-Txolartekoek San Miguel Patronatuko eraikina-

ren azpiko lokaletan txoko berria dute aurreantzean, Udalak ekintza eta ekitaldiak egiteko lokal berria egokitu dielako. Txolarte, Atzegi eta udaleko arduradunek hartu zuten parte lokal berriaren inaugurazioan, apirilaren 8an.

Atzegi-Txolartek lokal berria du



NEREA URANGA

EHEren oinezko martxa herrian



NEREA U.

Euskal Herrian Euskaraz taldeak euskaraz Euskal Herri osoan ofiziala izan behar duela

aldarrikatze-ko oinezko martxa herrian izan zen apirilaren 6an. Baionan hasi eta herriz herri ibili ondoren, Bilbon bukatu zen. Azpeitian, ongi etorria Loiolako ibilbidean eman zitzaion. Trikitilari eta guzti herriko kaleetan barna ibili eta gero,

Zestorako bidean epaitegi aurrean agurtu zuten martxa, txalaparta doinuak lagun. Azpeitiko Euskal Herrian Euskaraz-ek justizia arloan euskaraz bizi duen diskriminazioa salatu zuen.

KM'00 Makailau lehiaketa arrakastatsua izan zen



UZTARRIA

Kilometroak'00 direleta plazan pasa den hilaren 9an egindako

Makailau Lehiaketa arrakastatsua izan zen.

Bailarako 24 elkartek hartu zuten parte. Lehen saria Landeta elkarteko sukaldariak jaso zuen: Imanol Aramendik. Bigarren saria Azpeitiko Ilunpe-k jaso zuen; hirugarrena, Nurbeko Nahi Genduenak elkartek.

motxien

Josu Goenaga azpeitiarrak lortu du Iturri-Zahar beka

Euskara Patronatuak Josu Goenagaren proposamena aukeratu du Iturri-Zahar bekara aurkeztu diren lanen artean. Goenagak urtebeteko epean egin beharreko ikerketa lana, «Azpeitiko gazteen jarrera Euskararen inguruan. Ikerketa Soziolinguistikoa» da. Euskara Patronatuak Iturri-Zahar ikerketa beka Azpeitiko euskarari buruzko ikerketa sustatzeko sortu du.

Sebas Lasak 48 egun egin zituen gose greban; Gotzon Aranburu herrikidea preso

Sebas Lasa, Lagun Onak futbol taldeko atezain ohiak 48 eguneko gose greba egin zuen, Valdemoron, presoan eskubideen alde. Lagun Onak-eko jokalariek atxikimendua adierazi zioten apirileko partidu batean (argazkian). Bestetik, Gotzon Aranburu, Hernanin bizi den azpeitiarra, apirilaren 27an atxilotu egin zuen Ertzaintzak, beste hamabi lagunekin batera. Iaz ere preso egon zen Gotzon; urte bukarran geratu zen libre.



motxien

'Botikas', gazte mugimenduan aski ezaguna, hil egin zen apirilaren 14n

Juanjo Juaristi *Botikas*, apirilaren 14n aurkitu zuten Eibarran, hilda. Botikas ezaguna zen gure herrian, besteak beste familiak plazan duen botikagatik, baita ere bera gazte mugimenduan ibili ohi zelako. 35 urte zituen. Poesia idazten zuen, eta hona ale bat Ostiela!-n argitaratua:

ALPERRA NAIZ ETA
HARRO NAGO

Despertadore hiltzailak nere ongizatea izorratuz, / izan ere alperra naiz eta normala naiz! / Gizarte legeak perbertitzen dute lan egitetik pasodagien / ...moral «naturala», / baska neurotizatuta, / desokupatua txarki da. / Zigarroak erre: oi, ze nerbiok!

erretratutan

Udalbiltzak deituta Aberri Egunean ekitaldia



Udalbiltzak Aberri Egunean ekitaldi

bateratuak ospatzeko deiarekin bat egin zuen Azpeitiko Udalak. Aberri Egunean plazan egin zen ekitaldi bateratuak herritarren presentzia izan zuen, baita udalean dauden alderdien ordezkari batzuen ere. Udal ordezkariak, udaletxeko balakoiak bildu ziren eta handik agiria irakurri zuten. Euskal Herriaren eraikuntzaren beharra azpimarratu zuten. Goizean izan zen Azpeitiko ekitaldi hura —hala egin zen Euskal Herriko beste herrietan ere—, eta arratsalde partean alderdi abertzale bakoitzak nazio mailako bere ekitaldi propio egin zuen.

UZTARRIA

URBISTONDO MARGOAK
MARGO MUNDUAN ESKEINTZA PAREGABEA

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Argitarapen-honen ediziozko laguntzailerik: En la edición de esta publicación colabora:

kutxa *gizarte-ekintza obra social*

2005 - MARGAR



estetikako azken teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898

Gune baten beharrea


Azpeitian Gazteok Zer?!-ek proposamena egin dio udalari

► **Herriko egoerak bultzatuta gazte lokalen gabezia aztertzen hasi zen AGZ** ► **Udalean Gazte Batzordea izatea garrantzizkoa dela dio AGZ** ► **Udalak proposamena aztertuko du**

Nerea Uranga

Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak gazte gunearen proposamena bideratu du udalera Gazteria Batzordetik. Aurreko ikasturtean hasi ziren AGZ?! taldekoak lokalen inguruko kezka buruan eta lanean, ordea lokalen gaia landu izatera herriko egoerak berak bultzatu zituen. «Taldeetan-eta gazte dezentente mugitzen dela ohartu ginen, eta lokalen kontuari heltzea talde desberdinen artean erabaki genuen, sindikatu, alderdi politiko, taldeak eta abar. Atxiki-menduak bildu genituen, gazteok kudeatutako gune baten alde», diote gazteek.

Bigarren aldi batean, hau da, aurtengo kurtsoan AGZ?! taldeko azpi-taldea lokalen inguruan hasi zen lanean, eta jende baten inplikazioa lortu izan du. Ondoren udalarekin harremanak bideratzen hasi ziren. Gazteen esanetan, udalarekin harremanak izatea egun arte «oso zaila izan da», eta azken legegaldian Gazteria Batzordea sortu izana oso garrantzitsutzat jo dute. «Iaz ere saiatu ginen udalarekin harremanetan jartzen, baina oso zaila zen bilera bat lortzea. Gainera, gure gaia ez genekien udalean nora zuzendu. Guretzat Gazteria Batzordea sortzea funtsezkoa izan da. Jada gazteriko batzordeburua den Larraitzekin harremanetan gaude. Berak asmo ona azaldu du, baina azaldu zigun proposamena zehaztuta emateko. Egin dugu proposamena eta eman diogu».



Azpeitian Gazteok Zer?! taldearen aldarrikapena gazte gunearen inguruan.

Gazte gunearen proposamena AGZ?! taldeak udalera bideratu badu ere, ez da gazte talde bakarra izan proposamena osatu duena. «Proposamena batzar ireki batetik pasatu da. Eta batzarretik ateratako proposamena eraman dugu udalera. Uste dugu lokalaren eskakizuna ez dela AGZ eta herriko beste gazte taldeek egiten duten eskaki-

zun soil bat. Herriko gazteok aspaldi somatu izan dugu arlo honetan Azpeitiak duen hutsunea eta aldarrikatu ere sarritan aldarrikatu izan dugu».

Eztabaidetatik ateratakoa

Gazte gunearen proposamena udalera bideratu izana, iaz gazteentzako gune fisiko baten behar harraren inguruan sortutako ez-

tabaidetan erabakitako hiru bi-deen artean bigarrena da. AGZ?! esanetan, batzarretan il-doak erbakitzerakoan hiru bide zehaztu ziren. Lehena alokatu-tako lokalarena zen, bigarrena udalarekin harremanetan jarri eta gazte-gunearen proposame-na aurkeztea, eta hirugarren bi-dea okupazioa litzateke. «Lokal bat edo beste alokatzeko saia-kera serio bat egin da, baina ez da posible izan lokalik aloka-tzea, eta alde batera utzi da au-kera hori. Lokala alokatuz, lokal bat eramateko gai garela azaldu nahi genuen, ekitaldi eta ekintza desberdinak antolatzeko ere gai bagarela». Orain udalean pro-posamena aurkeztuz bigarren bideari ekin diote. «Udalaren au-kera bertan behera gelditzen ba-da, beste bide bati ekin beharko genioke, eta hirugarren bidea gelditzen da zintzilik».

Udala eta Gazte Txokoa

Udaleko Gaztedia Batzorde bu-ru Larraitz Olaizolarekin ere e hitz egin du UZTARRIAK; gazte txokoaren egitasmoari buruz hain justu. «Gazte Txokoaren proiektua egina dago. Izarraitz frontoiaren azpiko lokaletan izango da, eta txoko hau 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzako izango da». Gazte Txokoaren funtzionamenduari dagokionez, ludotekaren antzekoa izango dela adierazi du Larraitz Olaizo-lak, hezitzaileekin eta abar. Bai-na ordutegian desberdinduko da, «ordutegia ludotekaren alde-an luzatu egingo delako». Gazte Txokoaren egitasmoa lehenbai-lehen jarri nahi dute martxan udaletik. «Adin honetako al-detik era honetako txoko baten eskaria handia da. Nik gaur

Gazte gunearen proposamena

Azpeitian Gazteok Zer?!-ek uda-lera zuzendu duten gazte gunea-ren proposamenak jasotzen dituen puntu honokoak dira:

BEHARRA ◉ Jubilatuta eta umeek bezala elkartzeko gune baten beharra nabarmentzen da proposamene-an. «Antolatzearen beharra» ikusten dute gazteek, talde antolatuen eraginkortasuna handitu eta zabal-tzeko abantailak emango dituelakoan baitaude. Herriko gazte guztien **erreferentzia-gune** izatea lortuko duen gazte gunearen beharra ikusten dute.

AUTOANTOLAKETA ◉ Herri baten biziraupenerako gazteria bizia eta

aktiboa izan behar duela diote. Auto-antolaketa «erraztu eta bultzatu» beharra dagoela dio proposamen honek.

IZAERA ◉ Herriko gazte guztiak bilduko dituen tokia izango da gunea, helburu ezberdinetara iristeko **tresna izango dena**. Irekia, gazte guztiek iritzia adierazteko eta agertzeko balioko duena. Gazteen interes eta sentsibilitate desberdinak potentzia-tuko dituena. Eta gune publikoa den heinean, udalaren laguntza jasoko duena.

ANTOLAKETA ◉ Kokapena, alde zaharrean edo Errebalean izan behar du, gazteak hemen biltzen direla-eta. Gunearen egituraketa, **funtzionamendua**, ordutegia eta ekipamenduak zehaztuta daude.



Azpeitian Gazteok Zer?! taldearen ekimen bateko une bat.



Azpeitia
Kimu bat

UROLAKO JARDINERITZA

Azpeitia - Urrestilla bidea
Tel./ Faxes: 943 15 00 85
AZPEITIA



OLAKOR
gozotegia degustación
Urbilarte Auzunea, 1
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Urrut.: 943 81 46 65

egun adin horretan ikusten dut gabezia handiena dagoena».

AGZek Gazte Txokoaren inguruan ere badu bere iritzia, «Gure taldean hamasei urteko zenbait gazte ere biltzen da eta uste dugu adin horretan autoantolatze-ko gai direla gazteak».

Gazte Gunearen proposamena udaleko gaztedia alorreko buruak eskuartean du. «Gazteekin bilerak egiten ari gara eta jaso berri dut euren gazte gunearen proposamena. Orain udalak aztertuko du eta ikusi egin beharko da bi aldeak zertarako prest gauden», dio Larraitz Olaizolak. Ha-

“Lokal bat aurrera eramateko gai gara, baita ekintzak antolatzeko ere”, dio AGZek

“Gazte gunearen proposamena jaso dut. Udalak aztertuko du”, dio Larraitz Olaizola zinegotziak

laber, gai horren inguruan ere beharrak somatzen dituela dio eta «bideak irekita daude».

Gazte gunearen proposamena atal hauek ditu: sarrera, historia apur bat, zer behar dugu?, Gazte gunearen beharra, izaera, antolaketa eta jaso dituzten herriko talde eta pertsonen atxikimenduak.



Laugarren Gazte Astea aurki

Aurten Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak maiatzaren 22tik 28ra IV. Gazte Astea ospatuko du. Gazte Aste hori taldearentzat aldarrikapenak kaleratzeko eta nolabait kurtsolari amaiera emateko modu bat da, gero oporraldia eta berriro uda pasatu ondoren ekingo baitie gaiak eskuartean landu eta ekintzak antolatzeari. Gazte astean 500 bat gazte parte hartu ohi dute futbito txapelketan, hitzaldietan, afarian, kontzertuan eta abar.

UZTARRIAK eurekin hitz egin zuen unean, buru-belarri Gazte Astea prestatzen ari ziren AGZ taldekoak, zein musika talde ekarriko duten kontzerturako, hitzaldiak zeren inguruan eta non... Gazte Astean bukatuko da Futbito Txapelketa, urtero antolatu ohi dena eta arrakasta itzela izan ohi duena, emakumeen presentzia nahiko urria bada ere. «Iaz emakume talde bat aritu zen Futbito Txapelketan. Urtero egin

ohi dugu ahalegina emakumeek parte har dezaten eta talde mixtoak sor daitezen, baina beti ez da gertatzen», diote Gazteok Zer?! taldekoek.

Futbito Txapelketako finalerdiak Gaztea Astean izango dira, eta finala larunbatean plazan. Ondoren gazteak beraiek prestatu ohi dute ehundaka pertsonentzako afaria eta azoka plaza hartzen da afaritarako.

Udaletik Aste Santuko oporraldian antolatutako Gazte Asteari inguruan koordinazio falta dagoela diote AGZkoek: «Guk urtero antolatu izan dugu Gaztea Astea eta aurten udaletik beste Gazte Aste bat antolatu da. Uste dugu hemen koordinazio eta komunikazio falta nabaria dela». AGZ taldekoak gazteak bere kasa antolatu beharra nabarmendu dute. «Udalak antolatu Gazte Astean, beraiek antolatutako gauzak eskaintzen dituzte». ■

AZKOITIA

ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Eskulanak

Est-Bel

Foruen Ibilbidea, 3
Tel.: 943-816107

- Zurezko altzarrien polikromatua.
- Metala, tela, eskaiola eta poliuretanoan margotzea.
- ... eta beste hainbat eskulan.

Matrikula zabalik urte osoan

BASILIKA BI URTEZ ITXITA

Basilika barruko kupula
eta lur-zorua
eraberrituko dituzte

Aurre-egitasmoa
prestatzen
urtebetean jardun dute


NEREA URANGA



Loiolako basilika bi urtez itxita izango da —2001ean eta 2002an—, basilika barrenean egingo dituzten berriztatze lanak medio. Berriztatze lanak datorren azaroan hasteko asmotan da Gipuzkoako Foru Aldundia.

Basilika barruan egingo diren berriztatze lan piskuena kupulan bertan egingo da, Foru Aldundiko Jabego historiko-artistiko, artxibo eta museo ondareen zerbitzuko buru Gabriela Vives-ek esan digunez, «basilika barreneko kupula konpondu eta berriztatuko da, bertako pitzadurak konponduz eta garai batean izan zen bezalatsu uzten saiatuko gara».

Pasa den hamarkadan, Loiolako basilikaren jabea den Foru Aldundiak, basilikaren kanpoaldeko kareharrizko kupula konpondu zuen, eta oraingotan kupula behar bezala konponduta eta berriztuta uzteko asmotan ekingo die lanei. Lan hauen inguruan jesuitekin hitz egiteko parada izan dugu eta Inazio Zabala basilikako lanen aurre-egitasmoan lanean jardun zuenak, lanen inguruko azalpenak ematean zera adierazi du: «Kanpoaldea jada konpondua dago, eta laster batean barruko kupula berriztatuko da. Kupula guztiz esferikoa egin zen bere garaian, honek ahuldu egiten du kupula bera eta gainean duen linterna oso astuna da gainera. Pitzadurak egin ziren kupulan eta zatiak erortzen hasi ziren bertatik. Kupula margotua dago eta margoak berezko kolorea galdu egin dute. Argi elektrikorik ez zenean kandelaz argizatzen zen basilika eta hauen →



keak margoak ilundu ditu».

Kupulaz gain, basilika barreneko lur-zorua ere berriztu egingo da. Inazio Zabalaren esanetan, «Foru Aldundiak garrantzizkoa ikusi du basilika barruko lur-zorua berriztatzea eta berezko duen distira ematea. Basilikak jaso dituen bisitari multzo handiarekin distira galdua baitu eta berez lur-zoruzoragarria da».

Basilika barruan egingo den hirugarren berreskurapena girolarena da. Basilika barrenean bueltan duen korridorea berreskuratu nahi da. «Elizen artean bakarrenetakoa da girola duena; hau da, basilikaren inguruan halako eraztun bat du eta hau berreskuratu nahi da», adierazi digu Inazio Zabala jesuitak.

Urtebete aztertzen

Basilikako kupula eta lur-zoruko lanen aurre-egitasmoa egiten urtebetean aritu da horretarako sortutako batzorde bat. Bertan Foru Aldundiko arkitektoak, injineruak, Euskara eta Kultura Sailko kideak, eta jesuiten ordezkari bezala aipatu Inazio Zabala aritu dira.

Komisio honen zereginak Foru Aldundiko arduradunen esanetan, «gure zereginak beharrezkoak

Kupularen eraberritze lanak

Loiolako basilikaren egitasmoa 1681an Carlo Fontana arkitektu erromatarrek egin da. Harrezkero hainbat lan izan dira bertan bai barruan bai kanpoan. Eta kanpoaldeak behintzat itxuraldaketa nabarmena izan du. Kupularen azken eraberriketa lanak pasa den hamarkadan egin ziren. Kupularen kanpoaldea eraberritu zen eta burdinezko egitura batez indartu zen. Giorgio Croci injineru italiarraren taldea arduratu zen eraberritze lanez. Eraberritze lanak 1988-89 eta 1993-95 urte bitartean egin ziren. Garai horretan basilika inguruko eraberritze lanak ere egin ziren, kanpoaldea erabat itxuraldatuz. Loiolako basilikak kupula bikoitza du, kanpokoa kareharrizkoa da, Izarraitzeko kareharriarekin egin hain zuzen ere, eta barrukoa, berriz, harearritzkoa da egin zen garaian, hasieran Donostiatik ekarria eta gero Zumaia eta Getariatik ekarria.



Gabriela Vives

(Foru Aldundia):

«Kupula barrutik

konpondu eta

berriztatuko da;

garai batean

bezala

uzten saiatuko

gara»

«Basilikako lanen

aurre-egitasmoa

egin eta

165 miloiko

aurrekontua

onartu da»

Inazio Zabala

(Jesuita)

«Kupulak

pitzadurak ditu

eta kandelen

kearekin

koloreak

ilunduta daude»

Urtean 300 mila bisitari

Loiolara bisitan datozenak ez dira Euskal Herrietik etortzen direnak bakarrik. Munduko leku anitzetatik etortzen dira Loiola bisitatzen: Portugal, Ingalaterra, Italia, Japonia, Espainia, Frantzia, Polonia, Alemania, Txekiar Errepublikak, Ipar eta Hego Korea eta Indonesia bezalako herrialdeetatik etortzen dira bisitan. Etxeberria jesuitak iaz 1.411 autobus zenbatu zituen guztira eta bere zenbakien arabera 70.000 bisitari inguru heldu zen autobusez Loiolara. Alde handiz bisitari gehien Frantziatik etorri zen. «Frantziatik jende asko etortzen da Loiolara, autobus gehien frantziarrekin etorri ohi dira, iaz 600 autobus izan ziren», dio Loiolako Santutegian informazioa ematen eta bisitariei agurra ematen arduratzen den Etxeberria jesuitak. Beren kasa autoz etorritako bisitariak ere asko dira. Etxeberriaren ustez, urtean 300 mila lagun etortzen da Loiolara.

Postuetakoak ez daude kezkatuta

Loiolako oroigarriak saltzen dituzten postuetakoak ez daude horrenbeste horrenbeste kezkatuta Loiolako basilika itxia izango dela eta, haiek beraiek UZTARRIARI kontatu diotenez. «Etxe santua eta gainontzeko eraikinak ez dira itxiko, eta bisitariak etortzen jarraituko du-

tela uste dugu», diote. Loiolako era guzietako oroigarrien postuak atek ireki berri samar dituzte eta orain izaten dute lan gehien. «Neguan hemen ez da ezer askorik egoten, udaberri aldera hasten dira eskoletako ibilaldiak eta bisitariak etortzen». Basilika ixtekoa dela badakite, kupula konpontzekotan direla ere bai, baina ez die gehiegi kezkatzen.



ziren azterketak egitea izan da, gero aurre-egitasmoa egin ahal izateko. Foru Aldundiko arkitektura zerbitzua izan da aurre-egitasmoa egin duena».

Ondoren, Loiolako basilikako arduradun den Kultura eta Euskara departamentuak onartu zuen aurkeztutako aurre-egitasmoa.

165 milioi pezeta Basilikako lanen aurre-egitasmoa martxoan bukatu zuen Foru Aldundiak. Egun, egitasmoa konkurtso publikoan da. Lanak hasteko epe bezala datorren azaroa jarri da, eta basilika bi urtez itxita egongo dela aurreikusten da, 2001 eta 2002 urtean. Aurre-egitasmoan lanak hamabost hila-

Basilikan ezkontzerik ez

Ezkontzeko eguna basilikan 2001 eta 2002 urtean hartua ziren bikote askok lekuz aldatu behar izan dute. Jesuitek lanen berri jakin ahala, basilika ixtearen berri eman zien bikoteei. Eta egun bikoteak, lekuz aldatzen edota Loiolan jesuitek eskaintzen dizkien beste

bi aukeren artean aukera egiten ari dira: Garate Anaiaren etxe-ko kaperan edota Etxe Santuko kaperan. «Ezkontza jendetsuetarako kapera bat prestatzeko asmotan gara, baina arazoa non eta nola da. Izan ere, hemen, basilikan, urtean zehar ezkontza asko izaten ditugu, asteburu batzuetan bost ezkontza-eta izaten ditugu», dio Zabala jesuitak.



beteko iraupena izango dutela aurreikusten da, baina Zabala jesuitaren ustez, «honetako lanek luze jotzen dute eta askotan ematen diren epeak luzatu egiten dira eta aurrekontuak igo». Lanak egiteko Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak 165 milioi pezetako aurrekontua onartu du.

Zabalak kupula berriztatzea beharrezkoa deritzo: «Loiolako basilika oso eraikuntza garrantzitsua da, Euskal Herriko garrantzitsuenetakoa».

Gabriela Vives, Gipuzkoako Foru Aldundiko ki-dearen esanetan, «kanpotik kupula konponduta dagoela, une aproposa deritzogu barrenetik konpontzea». ■

UZTARRIAREN telefono zenbaki berria: **15 03 58**

UZTARRIAREN helbide berria: **Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre**

Kontua da...

Lehen eta orain, Urolaldean trenarekin amets



Imanol Elias
Historialaria

Lehen kilometroak egiten hasi zenetik egin zuten amets azpeitiarrek trenarekin; gero, egi bihurtuko zen ametsa, eta azkenean, berriro amets bihurtuko zen nahia.

Norteko trenbidea nahi izan zen gerturatu Urolaldera 1856an, eta Bergaran egin zen bilera bat azpeitiar agintariak bertan zirela, bai-



oSaSuNa

Amuarraina



Julian Bereziartua
Medikua

Amuarraina seguraski gure erreketako arrainik osatuena da. Erreketakoa aztertuta, oso ur oxigenatu garbietan bizi direla ikusten dugu, satsadura guztietatik ihes eginez. Ur hotzak nahiago dituzte, baina amuarrain batzuk tenperatura altuagoak jasan ahal dituzte. Berauen haragia fin eta delikatu da. Harrapatu eta gero, kontu handiz zaindu behar

OSAERA
Bereizgarri nagusia proteina kopurua du, gorputzak erraz jasotzen ditu

rehala bere haragia erasotzen dute, eta horrela amuarrain hori janezin bihurtzen da. Bere %80 ura da. Ez du azukrerik.

%2 koipea du, eta %20 proteinak dira. Jan daitezken 100 gramoko 100 kaloriduna da. Azido uriko mailaketan erdiparean dugu, eta askotan gotadunek ezin dute

jan. Gatz mineraletan aberatsa da: kloro, sodio, fluoro eta iodoa ditu. A, B eta D bitamina gutxi ditu. Konposaketa, makailu eta legatzaren antzekoa da. Bereizgarri nagusia proteina kopurua da; hauek gorputzak erraz jasotzen ditu.

SuKaldaRitZa

Gulak pil-pilean



Lurrezko ontzi batean olioia jarri berotzen, gero baratxuria txiki-txiki eginda moztu eta oliora

bota, baita pipermina ere. Behin kolorea hartu dutenean, ontzia su gaitetik atera eta olioari epeltzen utzi.

elkaRtaSuNa

Misiolarien herria

Misiolari asko eman dituen herria izan da Azpeitia; gure datuen arabera, 40ren bat azpeitiar misiolari sekular eta erlijioso daude herrialdeetan pobreetan.

Horiekin harremanetan jarri eta ahal dugun heinean launtzeko sortu zen Azpeitiko parrokiako misio taldea.

Harreman hori eskutitz bi-



na urruti igaroko zen proiektua. Herritarren nahia gogoran, herriko alkateak adieraziko zuen 1882an nortarainoko erosotasuna sor zitekeen; Gasteiztik irten eta Urolaldean zehar igaro zitekeen trenbidearen proiektua. Hau ere, ezerezean gelditu zen.

Beste bat sortu zen 1883an, Zumarraga eta Zumaia lotuko zituena, urteak aurrera pasatzen ziren eta oztopo handiak sortuko ziren, eta 1896an tranbe elektriko ba-

ten proiektua egin zen. Azpeitiko agintariek honoko baldintzak jarri zituzten, besteak beste, herrian igaro behar zuenari zegokionez: Erdikalearen ezker aldetik beharko zuen trenbideak, tranbea eta etxeen artean 75 zentrimetroko tartea. Tranbearen abiada, pertsonaren pausokoa beharko zuen izan, eta gainera behin eta berriz kanpaia joko zuen,

ERDIKALEAN
1896an tranbe elektrikoaren proiektua; proposamena, Erdikalearen ezker aldetik pasatzea

hurbiltasuna adierazteko.

Egi bihurtzeko zorrian izan zen hura ere ez zen sekula egi bihurtuko. Ordea, bai Urola tren mar-txan jartzea 1926an, urteetan egoki bete-ko zituena Urolalde-ko biztanleen beha-

rrak, sekulako bultzada emanaz industriari. Amets motz bat besterik ez zen izan ordea eta ametsetan jarraitzen dugu....

osagaiak

Aurkene / Atsedeen Jatetxea

Gula kilo bat ■ Bartzuri buruak ■ Baratxuri bat ■ Cayenne piperra ■ Gatza ■ olioia

Gulak bota ontzira, eta ontzia berriro su gainean jarri. Egurrezko sardeska-ekin ondo nahastu gulak, olioaren ongi busti daitez-zen eta itxoin piska bat.

Gulak egosi baino lehen atera behar da ontzia su gaintetik, eta mahaira ateratzeko prest izango ditugu.

On dagizuela!

dezkoa da batez ere, baina beraien jaioterrira bueltatxo- ren bat egiten duten misiolari gehienekin izan dugu zuzene-ko harremana.

Ez gara horretara mugatzen, ordea; hainbat ekintza ere egiten ditugu. Hala nola, hitzaldiak, azokak, erakusketak... Ekintza horien bidez bi helburu ditugu; batetik, misio-

lariei laguntzea; eta bestetik, hirugarren munduko arazoez jendea sentsibilizatzea. Eta azkeneko helburu hori da, gure ustez, garrantzitsuena.

Artikulu honen bidez gure taldearen berri eman nahi genuen, besterik gabe.

Misio Taldea

EuSKaRa

Hizkera desberdinak

Aitor Arruti
Arantzazu Azpillaga

EuKak Filologian lizentziatuak

Euskara nabarmen aldatzen da toki batetik bestera. Gauza bera adierazteko modu desberdinak ditugu kilometro gutxiren buruan, hizkuntza gehienetan bezala.

Beste hainbeste gertatzen zaigu geure eskualdean ere. Guztio- k Azpeitiko euskara darabilgula jakin arren,

ez da berdin hitz egiten Azpeitia osoan. Intonazioan, hitzetan, hitz-bu-kaeretan eta aditzen era- bileran nabaritzen dira gehienbat desberdint- sunak. Besteak beste, 'S' eta 'Z' ez ditugu guz- tiok berdin ahoskatzen, azken silaba zenbait to- kitan besteetan baino gehiago luzatzen da eta ohiko «sua» *zue*, *zube*,

zuba, *sube*, *suba* bihurt- zen da tokian-tokian.

Halaber, adinaren ara- bera asko aldatzen dira kontuak inguru berekoen artean ere. Zenbat eta

zaharrago izan, orduan eta des- berdintasun na- bar menagoak hiltunen artean.

Orain lehen bai- no askoz berdi-

nago hitz egiten dugu; komunikabideek, esko- lak, kirolak, kultur ekital- diek... garai batean bai- no gehiagotan baterat- zen gaituzte. Lehen au- zo bakoitzak zuen bere eskola, eliza, topalekua, eta auzotarrak gutxitan hurbiltzen ziren kalera. Orain, egunero elkartzen gara eta *zapoera* batua- goa hitz egiten dugu.

ADINA
Ez da ber- din hitz egi- ten Azpeitia osoan: in- tonazioan...

Kontseilua Azpeitian

Plan estrategikoaren azalpena egin zuen azpeitiarren aurrean

- ▶ **Herriko talde, ikastetxe eta erakundeetako ordezkari ugari bildu zen apirilaren 14an Kontseiluaren bileran**
- ▶ **Plan estrategikoa azaldu zuen Kontseiluak** ▶ **Plana konpromiso garaian dago**

Maite Etxaniz



Kontseiluko Juan Mari Larrarte hitzaldian

IÑAKI URANGA

Kontseilua herrian izan zen plan estrategikoaz hitz egiteko; Juan Mari Larrarte aritu zen hizketan. Hitzaldiak partaidetza zabala izan zuen, taldeetako, ikastetxeetako eta erakundeetakoak bildu baitziren.

Kontseiluko ordezkariak bi helbururekin egin zuen hitzaldia: batetik, plan estrategikoaren bilakaera azaldu zuen; bestetik, konpromisoak hartzera bultzatu asmoz aritu zen.

Larrarte Hego Euskal Herrian plan estrategikoak dituen puntu nagusien inguruan aritu zen: «Gurekin batera plan estrategikoa diseina zezaten gizarte eragileei deitu genien, herrialde

bat baino gehiago biltzen dituzten gizarte eragileei. Guztira 700 bat dira». Iazko maiatzean, lau herrialdetan egindako sinadura ekitaldia eta metodologia-ri heldu zitzaion Kontseilutik: «700 elkarte hartu eta sektoreka banatu genituen, bost multzo nagusitan. Orain lan-talde bakoitzak bere sektorearen azterketa egin eta bere sektoreari dagokion proposamena egingo du», zioen Larrartek.

Metodologiari ekin ondoren, diseinu fasea dator, eta honek hiru

une ditu: «Diagnosia, helburuak markatu eta helburuak betetzeko zer neurri hartu behar diren zehaztu. Dinamika hau gizarte ekimenetik sortu da, eta prozesua borondatekoa da». Hurrengo pausua konpromisoak hartzea da. «Konpromisoen garaian gaude maiatza erdi arte».

Haren hitzaldiaren ostean, herriko ordezkari batzuek hitz egin zuten Azpeitiko egoeraz, eta hil honen 10erako geratu ziren sakonago mintzatzeko. 20:00etan da bilera, Aitonenan. ■

KIRURI
JATETXEA

Loyola hiribidea, 24

LOYOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

UZTARO HAURTZAINDEGIA
1975 - 2000
XXV. Urteurrena

0-3 urte arteko
haurren txokoa

UZTARO HAURTZAINDEGIA
Jesus eta Maria Komentua
943 81 31 90
20730 AZPEITIA

HORTZ KLINIKA

Dr. Antonio Rafaniello

- Odontologi Orokorra.
- Odontologi Estetikoa.
- Ahozko Zirujia.
- Implante integralak.
- Protesis mugikorraren sustituzioa, protesis fijora.
- Pieza gabekoa, sustituzioa pieza fijora.

Enparan n°8 - 1º Tel.: 81 67 36

Xoxote Eguna, jaia soilik?

Lagun Onak Mendi Bazkunak festa eta inguruaren apustua egin du



Xoxote Eguneako irudi bat. Jendea aterpe ondoan.

ANJEL MARI ETXEBERRIA

Xoxoteko eguna, maiatzeko azken igandeko jaia, aski ezaguna den eguna da mendizaleen artean, eta nola ez herritarrentzat. Egun berezia baita. Gaztetxoentzat, adibidez, finalista eguna da.

Lagun Onak Mendi Bazkuna-ren 50. urteurreneko liburuan, «errebaldarrak pazko bigarren ez egin ohi zuten erromerian du muina Xoxoteko egunak» esaten da Xoxoteko egunaren inguruan, «Errebaleko gazteak oso gogoko zuten Xoxoteko

► **Xoxoteko egunak Errebaldarren erromerian du muina.** ► **Gaztetxoenek urteko eginahalaren saria jasoko dute Xoxoteko egunean.** ► **Mendizaleek ingurua zaindu eta zaborra jasotzeko eskatu dute.**

Mikel Urbieta

festa eta bezperatik joan ohi ziren biharamunerako festa prestatzeko». Egun Xoxoteko Eguna prestatzen Lagun Onak M.B.koak aritu ohi dira. Maiatzeko azken astean mendi astea antolatu ohi dute, herriko eta kanpoko mendizaleen proiektioekin, eta asteari bukaera Xoxoteko Egunarekin ematen diote.

Mendizaleen elkarteko batzordearen iritziz, «egun honi eta egun honetako mendi irteerari garrantzia handia eman izan →

 **Harategia
Odriozola**

Harategi
Especializatua



Arana kalea, 14 - Urrut.: 943 81 10 15



AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

Azketa eta Elurzulo arteko zuhaitz landaketa

Lagun Onak Mendi Bazkunak

zuhaitz landaketa egin zuen iaz ere urtero ohi bezala. Iazkoan Azketa eta Nebero (elurzulo) inguruetan landatu zituzten. Baina Xoxote Egunean landatu zituzten zuhaitzak errotik moztuak izan zirela

ohartu ziren. «Elurzulo inguruko zenbait landare tubo azpitik moztuta agertu ziren. Egun batzuk beranduago jakinarazi ziguten hainbat zuhaitz ezola eta guzti atereak izan zirela». Hilabete beranduago antzeko ekintzen berri izan zuten mendi-

zaleek. «Azkenengo ekintzak gertatu eta gero ohartu ginen Azketako bide ertzean landatutako zuhaitzak ez zutela denen oniritzia, zenbait jende zuhaitz landaketaren aurka zegoela». Lagun Onak M.B.k aitortu du zuhaitzak landatu aurretik lur jabeekin hitz egiterik ez zutela izan. Eta zuhaitz mozketak hasi ostean, eta lur jabeekin hitz egin ondoren, «denek ez zuten iritzi bera zuhaitzak landatzearen inguruan», diote mendizaleek.

Urtean zehar mendi irteeretan parte hartu duten haur eta gaztetxoek finalista eguna

zaio beti elkarte honetan. Hainbat ekintza ere antolatu ohi dira bertan ospatzeko».

Xoxoteko Egunean haur eta gaztetxoek urtean zehar mendizaleen irteeretan parte hartu izanagatik domina jasotzen dute. Horretarako hainbat mendi irteeretan izerdia bota beharra izaten da. «Urtean zehar mendizaleon egutegian hamabi bat irteera izaten dira umeentzat. Guretzat urtea edo kurtsoa Xoxoteko Egunean hasten da, eta ordutik datorren urtea arte antolatuta dauden hamar mendi irteeretan parte hartuz gero, Xoxoteko Egunean domina ematen zaie». Gaztetxo bakoitzari mendizaleek txartela banatzen die, eta irteera bakoitzean txartelari zigilua botatzen die. Zigilua jasotako txartelak Xoxoteko Eguna baino aste bat lehenago Txalintxo mendira egiten den irteeran jasotzen dituzte mendizaleek.

Baina mendi irteeretan haurren eta gaztetxoek partaidetza urriarekin kezkatuta azaldu dira mendizale taldekoak. «Aurten ume eta gaztetxo gutxiago dabilta umeentzako antolatu ditugun mendi irteeretan. Orain

Takoloren orain 20 urteko astebete hura



Enekoitz Esnaola

San Inazio estatuekin zerikusia handia dauka Joxe Urbieta *Takolo*-k, berak hartu izan baitu noizean behin estatua konpontzeko eta margotzeko erantzukizua.

«1956an inauguratu zuten San Inazioen estatua. Zementozkoa egin zuten, eta iluna geratzen zen. Handik urte batzuetara zuriz pintatu behar zela esaten nuen nik, baina inork kasurik egiten ez zidala ikusi eta inori

baimenik eskatu gabe, zuriz pintatu nuen. 1980a zen. Bi urte lehenago ere pintatu nuen, letzararekin, baina zuriz margotutakoa jendeari atentzioa eman zion itxurak, ikaragarri gustatu zitzaion lako. Osaba *Montte*-ri



Everesteko 1980. urteko euskal espedizioa; han izan zen Joxe Urbieta *Takolo*.



Lagun Onak Mendi Bazkunakoak zuhaitzak lan

ANJEL MARI ETXEBERRIA

Lagun Onak-etik zuhaitz landaketa asmo onez egin zutela azaldu dute. «Zuhaitzak landatzeak lurra-
ren euskarri tinko izango diren irit-
zikoak gara. Era berean, bertako
abereentzat ere mesedegarri direla
iruditzen zaigu».

Azkeneko hilabeteetan herriko
mendizale elkarte honek inguruko
txukuntze lanak egin ditu. «Gure
ingurunea garbi eta txukun man-
tentzeko helburuarekin egin
dugu».

kendu nion pintura»,
esan digu Takolok be-
rak.

Akzio handia zen,
bai, baina hura ez zen
une hartan Takoloren
ardura nagusia, San
Inazio lehen aldiz zuriz
pintatu eta handik as-
tebetera Everestera
abiatu behar zuelako.
Espedizio historikoa
izan zen hura, eus-
kal mendizale batek
—Martin Zabaleta her-
naniarrak— aurrene-
ko aldiz egin zuelako
munduko mendi han-
dieneko tontorra; hain
zuzen, hil honen 14n
beteko dira hogei urte.

38 urte zituen orduan
Takolok. Sei urte lehe-
nago ere Everesteko
aurreneko euskal es-
pediziokoan artean
zen, baina azkenean
ez zen joan, ordezko-
en artean zegoelako.
«Everestera joan ziren
askok baino poz han-
diagoa nuen, ordea»,
dio. 1980an bai, or-
duan joan zen hara,
euskal mendizaleen
selektioko partaide gi-
sa. Lorente eta Rosen
ziren espedizioko bu-
ru, eta bi haiek deitu
zioten. Takolok gogo-
ratzen duenez, urte
batzuk lehenago hasi
zen harako bidea jo-

rratzen. «Afari bat izan
zen niretzat benetan
erabakigarria. Hau da,
1974-ko Tximist euskal
espedizio hura zela
eta, bertako kide ba-
tzuk Loiolara etorri zi-
ren Cope irratirako hitz
egitera. Neuk egun be-
rean ezkontza bat neu-
kan Loiolan, lehengu-
su batena, eta hala, to-
po egin nuen Lorente
eta hauekin Loiolan.
Juan Mari Alkorta neu-
re lagun handiari esan

San Inazioren estatua lehen aldiz zuriz pintatu eta astebetera Everestera joan zen

nion denok elkarrekin
afalduko genuela La-
gun Onak mendizalee-
tako lokal berrian, neuk
gonbidatuta. Onartu
egin zuten gonbitea
eta han joan ginen
afaltzera. Lotsa-lotsa
egon nintzen afarian,
baina gerora oso era-
baki garrantzitsua izan
zen, orduan hasi nin-
tzelako amistade pixka
bat izaten Lorentekin
eta».

1980ko espedizioan
bertan baino okerrago
pasatu omen zuen aur-
kezpenetan-eta, «iza-
eragatik», baina gero-
ra «ohitu egin behar»
izan du Takolok, doze-
na bat aldiz-edo joan
delako Himalaya alde-
ra. Hain justu, Everes-
teko ibilaldian «dena»
eman zuen, «beti be-
zala», baina arazo fisi-
ko batzuk izan zituen
eta gehiago ematea
eragotzi zion horrek.
Hala ere, lan eskerga
egin zuen Takolok or-
duan.

Hogei urte iragan di-
ra harrezkero, baina
oraindik ere manten-
tzen du harremanik es-
pedizioko beste bede-
ratzi kideekin. «Ez
handia, baina bai, tar-
teka egoten gara. Mar-
tin Zabaleta bera EEB-
Betara joan zen bizit-
zera 1981ean, baina
etortzen da tarteka, eta
joan den urtean egon
nintzen harekin».

Hogei urte igaro dira
bai, eta Takolok 59 urte
beteko ditu azaroan.
Baina berriro Himalaya
aldera joateko prest
dago. Hurrengo urtean
akaso. San Inazio pin-
tatzerari eta konpon-
tzeari utzi zion arren,
besteari ezin dio laga.

Xoxotera hurbiltzen den jende oldeak eta jaiak sortzen dituen eraginak kezkatu egiten ditu Lagun Onak M.B.ko batzordekideak

bi, hiru urte askoz ume gehiago
etorri ohi zen mendi irteeretara.
Saskibaloia, futbol partiduak ja-
rri ohi dituzte igandetan. Her-
riko taldeen artean koordinazio
falta somatzen da».

Xoxoteko Egunean ez da jaiak
edo festa bakarrik nagusitzen
Lagun Onak-eko mendizaleen-
tzat. Izan ere, jende multzo
handia biltzen da bertan eta
honek eragiten duenak kezkatu
egiten ditu mendi elkartekoak.
«Bada gero eta kezka handia-
goa sortzen duen arazo bat
egun honen inguruan: egun
honek bertako inguruetan duen
eragin kaltegarria. Eguna
amaitzean zabor pila handiak
gelditzen dira zabalduta Xoxote
aldean. Bestalde, gero eta auto
eta motor gehiago sartzen da
mendiaren barruraino landabi-
dean zehar».

Mendizaleek norberak bere
zaborra jaisteko ardura har-
dezala eskatu dute, ingurua
errespetatuz. «Mendi Bazku-
nak honelako egunak ospatzen
jarraitu nahi luke, baina gero
eta gutxiago gelditzen diren
Izarraitz bezalako inguruak
arriskuan jarri gabe», diote
Lagun Onak-ekoek. ■

zer dago gaizki, zer faltan, zer soberan?

Adi egin so eskuineko argazkiari, eta bertan zer dagoen gaizki, zer faltan edota zer soberan asmatu behar duzu. Zeure ustez asmatua baduzu, adierazi akatsa boligrafoz, moztu orrialde hau eta hilaren 20rako bidali gutun batean hona: Uztarria Kultur Koordinadora, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, Azpeitia; edo, bestela, 227 posta kutxa, Azpeitia.


Izen-abizenak:
 Helbidea:
 Telefonoa:
 Argazkiko akatsa:

Irabazleak **Atsedean Jatetxean** bi lagunentzako afaria izango du, eta **UZTARRIAREN** elastiko bat ere jasoko du.

aurreko argazkia



...eta soluzioa



irabazlea: **Idoia Gurrutxaga**



Afaria eta elastikoa ◆
 Idoia Gurrutxaga izan da seigarren irabazlea. Sari gisa, bi lagunentzako afaria izan zuen Pastorkua Erretegian (jabeak ere ageri dira argazkian), eta **UZTARRIAREN** elastiko bat ere jaso zuen.



Manuel Salaberria

BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
- Erretina askatze.
- Makulako gaisotasunak.
- Erretinopatia diabetiko konplikatua.



Esther Usandizaga

FAMILIAKO MEDIKUNTZA
 ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analisiak...).
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

OSTEOPATIA

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa (gerrrialdekoa, bizkarraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-B 1.º K

Tfnoa: 943 15 17 52

20730 Azpeitia-Loiola

izan beharreko telefonoak

Erakunde edo toki publikoak	
Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Nekazal Ganbara	81 46 56
Zerga Bulegoa	81 13 68
Enplegu Batzordea	15 03 00
INEM	15 04 02
Eusko Jaurlaritza	15 16 57
Urkome	81 65 00
Lapatx Zabortegia	81 55 05
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48
Osasuna	
Anbulategia	81 51 00
(Iarrialdiak)	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA	81 38 49
(Donostia)	46 46 22
Komunikabideak	
Uztarrria (berria)	15 03 58
DV	15 09 94
Herri Irratia	81 44 58
Kaito TB	81 53 35

farmaziak gaez

- Malatzaren 1etik 7ra**
Gisasola (Azkoitia).
Jandonianiz, 5. 85 12 35.
- Malatzaren 8tik 14ra**
Etxebeste. Jose de
Artetxe, 6. 81 59 74.
- Malatzaren 15tik 21ra**
Ruiz (Azkoitia).
Kale Nagusia, 13.
85 19 66.
- Malatzaren 22tik 28ra**
Zulaika. Harzubia
Hiribidea, 20,2. 15 03 34.
- Malatzaren 29tik
ekainaren 4ra**
Jaen (Azkoitia).
Ibaiondo, 28. 85 06 60.

Alderdi politikoak	
EAJ - PNV	81 55 70
HB - EH	15 12 15
EA	81 00 11
Sindikatuak	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28
Ikastetxeak	
Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesuitinak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola DBH	15 02 28
Garraloak	
Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59
Pesa	21 26 99
Piper U. Elkarte	85 25 87
Taxiak	81 13 07
Kultura - Euskara	
Euskara Patronatoa	81 19 47
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria (berria)	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40

gune publikoen ordutegia

- Udaletxea**
Astegunak: 9:00 - 13:30.
Larunbatak: 9:00 - 13:00.
- Ixploxio**
Egun osoz irekita.
- Igerilekua**
Astelehenak: 14:00 - 21:00.
Beste astegunak: 7:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.
- Kiroldegia**
Astelehenak: 9:00 - 13:00,
15:00 - 21:00.
Beste astegunak: 15:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.
- Udal Liburutegia**
Astegunak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

autobusak

JOATEKO	ITZULTZEKO
<p>Azpeltia-Zestoa-Donostia Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2). Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15. Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15. Enpresa: La Guipuzcoana. Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik.</p>	<p>Donostia-Zestoa-Azpeltia Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30. Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00. Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00. Enpresa: La Guipuzcoana. Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik.</p>
<p>Azpeltia-Elbar-Bilbo Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30. Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30. Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30. Enpresa: Pesa.</p>	<p>Bilbo-Elbar-Azpeltia Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00. Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30. Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00. Enpresa: Pesa.</p>
<p>Azpeltia-Bilbo-Leloa Astegunak: 6:35, 7:20, 13:30. Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.</p>	<p>Leloa-Bilbo-Azpeltia Astegunak: 13:00, 14:00, 18:00, 19:00, 20:00. Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.</p>
<p>Azpeltia-Azkoltia Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25. Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40. Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Azkoltia-Azpeltia Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00. Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55. Enpresa: EuskoTren.</p>
<p>Azpeltia-Zestoa-Zumala Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10. Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05. Enpresa: EuskoTren. Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.</p>	<p>Zumala-Zestoa-Azpeltia Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00. Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15. Enpresa: EuskoTren. Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.</p>
<p>Azpeltia-Zestoa-Zarautz Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10. Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10. Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Zarautz-Zestoa-Azpeltia Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45. Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00. Enpresa: EuskoTren.</p>
<p>Azpeltia-Zumarraga (hospitala) Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25. Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40. Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Zumarraga (hospitala)-Azpeltia Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30. Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45. Enpresa: EuskoTren.</p>
<p>Azpeltia-Errezil-Tolosa Astegunak: 6:55, 13:55. Asteburuak eta jaiegunak: - Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Tolosa-Errezil-Azpeltia Astegunak: 9:30, 18:30. Asteburuak eta jaiegunak: - Enpresa: EuskoTren.</p>

maiatza

5 (ostirala)

- **BERTSOLARITZA.**
Oilosoro elkartearen bertso-afaria, Imanol Epelde, Julen Zulaika eta Andoni Larrañaga bertsolari gazteekin.
- **MUSIKA.**
Orkatz Kultur Elkarteak antolatuta Donostialdeko Harlax musika taldearen rock kontzertua: 22:30etan Orkatzen.

6 (larunbata)

- **GAZTEAK.**
Gazte Ekimenakoek aurrerantzean egiteko antolatu dituzten ekintzen berri emango dute, Aitonenan 12:00etan.
- **ABESBATA.**
Mauleko Mendi Mendi eta Azpeitiko Antxieta abesbatzen emanaldia: Frantziskanetako elizan. 19:00etan.
- **ARGAZKILARITZA.**
Urola Bailarako XXIII. argazki rallyko sari banaketa Tren Museoaren entzun-ikuskitzuz gelan arratsaldeko 19:00etan. Rallyko diapositiba onenak ere ikusgai izango dira sari banaketa aurretik.

7 (igandea)

- **GOIZ ERESIA.**
Txistularien goiz eresia. 9:00etan.
- **MENDIA.**
Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta umeentzako mendi irteera Kakutera. Goizeko 9:00tan plazatik irtenda, goiz ibilaldia.
- **MUSIKA.**
Udal Musika Bandaren kontzertua Udaletxeko arkupetan. 13:00ean.

9 (asteartea)

- **INGURUGIROA.**
Zentral eolikoaren inguruko bilera informatiboa Enparanen 20:00etan.

10 (asteazkena)

- **EUSKARA.**
Herriko zenbait taldek deituta euskararen inguruko bilera. Aitonenan. 20:00etan.
- **DANTZA.**
Saltsa eta saloiko dantzen ikastaroa, irakasle Victor Jesus kubatarra izango da. Arana Goikoa 4n, arratsaldeko 20:30etan hasi eta bi orduko saioak izango dira.

11 (osteguna)

- **MUSIKA.**
Juan de Antxieta ziklo musikalak. Naiara Egaña pianojolea eta Soka laukotea. Enparan Etxean. 19:00etan.

12 (ostirala)

- **MUSIKA.**
Juan de Antxieta ziklo musikalak. Gu Geu ganbara taldea. Enparanen. 19:00etan.
- **AKANPADA.**
Kale Gorrianeke deituta bi eguneko akanpada izango da herriko plazan «etxebizitza arazoa» dela eta.
- **BERTSOLARITZA.**
Nuarbeko Nahi Genduenaren elkartearen bertso-afaria Iñaki Gurrutxaga, Haritz Aranburu eta Beñat Lizaso bertsolari gazteekin.

13 (larunbata)

- **MUSIKA.**
Juan de Antxieta ziklo musikalak. Musika eskolako orkestra. Frantziskanetako elizan. 19:30tan.
- **BAZKARIA.**
Kale Gorrianeke deituta etxebizitzaren egoeraren inguruko bi eguneko kanpaldiari amaiera emateko bazkaria izango da plazan.

14 (igandea)

- **GOIZ ERESIA.**
Txistularien goiz eresia goizeko 9:00etan.
- **MENDIA.**
Lagun Onak M.B.k antolatuta helduentzako Kanpazar-Eibar mendi irteera. Goiz ibilaldia goizeko 7:00etan plazatik aterata.

- **MUSIKA.**
Santurtziko txistularien kontzertua. Udaletxeko arkupetan. 13:00ean.
- **FUTBOLA.**
Hirugarren Maila: Lagun Onak-Euskal Herriko Unibertsitatea. Garmendipen. 16:30tan (alda daiteke ordua).

18 (osteguna)

- **IKASTOLA.**
Ikasberri ikastolako lehen solairuko biltokian iluntzeko 21:00etan, haur eta gazteekin komunikazio egoki bila gai bezala hartuta hitzaldi irekia. Hizlari Ione Larrea psikologoa eta Maite Mujika pedagogoa arituko dira.

20 (larunbata)

- **GARAGARDO JAIA.**
Kale Gorrianeke deituta arratsaldeko 19:00etan manifestazioa aterako da herriko plazatik. Ondoren, azoka plazan garagardo festa izango da, bertan DJak ere izango dira.

21 (igandea)

- **GOIZ ERESIA.**
Txistularien goiz eresia. 9:00.
- **MENDIA.**
Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta umeentzako mendi irteera Txalintxora. Egun guzti-rako irteera goizeko 9:00tan plazatik aterata.
- **MUSIKA.**
Azpeitiko bandako perkusio taldearen kontzertua udaletxeko arkupetan. 13:00etan.

26 (ostirala)

- **BERTSOLARITZA.**
Inpernu elkartearen bertso-afaria Urko Egaña, Iñigo Izagirre Olabe eta Jokin Urangarekin.
- **BERTSOLARITZA.**
Sanjuandegiko Udaberriko festetako egitarauaren barne, Ongi Etorri jatetxean bertso-afaria Jesus Mari Irazu eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin.

27 (larunbata)

- **GAZTE EGUNA.**
AGZ?! -ek antolatutako Gazte



■ JOLASEAN

Egunak: Larunbatak eta oporretan
Ordua: Egun osoz
Tokiak: Plaza, kale, frontoi, ikastetxe

LARUNBATEZ JOLAS OPORRETAN

Gazte Astea izan da, Aste Santuetako oporraldian Udaleko Gizartekintza eta Gaztedia sailak antolatuta. 13 eta 18 urte bitarteko gazteek kirol, jolas, ibilaldi eta

era desberdinetako hainbat ekintzatan parte hartu ahal izan dute. Guztira 30 bat gaztek parte hartu dute. Herriko ikastetxe eta ikastola eta azpiegituretan barrena

futbol txapelketa, saskibaloian, ping pongean eta esku pilotan aritu dira. Tailer desberdinetan ere parte hartu dute, makilaia, tautaiak, kamiseta tindaketa eta abarretan. Gazte astean Zestoako Sastarrain base-ri-eskolara egun guztirako ibilaldiarekin ondo pasatzeko parada ere izan zuten.

Larunbatez Jolas-ek oporraldian jarraipena izan du, haur eta gaztetxoenek hainbat ekitalditan parte hartu baitute. Talde arrosako, talde berdeko eta talde urdineko ia 300 gaztetxok parte hartu dute antolatu ekintzatan. Herriko kale, ikastetxe eta txokoetan aritu dira jolasean, kale hezitzaileekin.

Hainbat irteera ere izan dituzte, Goenara, Tren Museora, Xoxotera mendi irteera eta

bizikleta irteerak. Orain arte bezala maiatzean ere larunbatetan jolasean pasatzeko parada izango dute talde koloreztatuetako partaideek.

Asteko egitarauaren barne 16:00tan Futbito Txapelketako finala plazan. Ondoren, afaria azoka plazan eta kontzertua.

28 (igandea)

■ GOIZ ERESIA.

Txistularien goiz eresia herriko kaleetan barrena 9:00etan.

■ MENDIA.

Xoxoteko Eguna. Lagun Onak M.B.k antolatuta egun guztirako mendi irteera Xoxotera, goizeko 9:00tan plazatik irtena. 12:00etan meza, erromeria.

■ USO-TIROA.

Sanjuandegiko Udaberriko festak direla eta, Uso-tiroa Errezil bideko kanpan.

31 (asteazkena)

■ MUSIKA.

Sanjuandegiko Udaberriko Festetako egitarauaren barruan, Izaro tabernan musika kontzertua Elton John-en imitatzaile baten eskutik. (Oraindik ere ordua zehaztu gabe).

1 (osteguna)

■ MUS TXAPELKETA.

Sanjuandegiko Udaberriko Festak direla eta, Mus txapelketa Ongi Etorri jatetxean.

UZTARRIAREN OHARRA TALDEEI: bidali zeuon ekitaldion berri honako helbide batera: 227 posta kutxa (Azpeitia), edo Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre.

maiatZa

Amaia Garmendia

...eo Amaia gitarristie: gitarra ikasle, elizkaleko festak antolatzen, diskak banatzen, zezenketen kontra, hainbat salt-satan, antolatu eta lagundu asmoz betire...



"NERE LEHENENGO GITARRIE, ATTEK STARLUX-EKO PUNTUK OSAUTA LORTU NUN"

► Noiz hasi zinen gitarrie jotzen?

Eskolan, Esklabetan, Hermana Maria Luisa Jimenezekin, han akorde batzuk ikixi genitun. Gero, telebisiyun bideo-ikastaro bat ikusi, ta erosi nun, liburuk erosi ditut ta neure era asko ikixi det.

► Autodidaktie izentzea ordun.

Bai, pixket bai... gutxigora-behera. Gero, gure etxien'e beti eon da musike zaletasune. Guk denda bat geneuken Elizkalien, nik hamabi bat urte neuzkela. Ordun attek gitarra bat emantzin, Starlux-en puntuek osaute... gitarra txarra da.

► Gordetzen al dezu?

Bai, oindik gordetzen det. Txarra da.

Soka batzuk dauzke! Oso mattie det. Baño harekin ezerre jotzeik eztao.

► Gitarrie jotzen urte mordoxka bat, ezta?

Hamar bat urte, lokalakin ta kondiziñotan ai naizela. Aurten ezkonduk'e badauzket ikasle.

► Kantu zaharrak eo berriyek?

Danak. Igual geyo zaharrak, neuk geyo ezautzen ditutelako. Halare nik danetik erakusten ditut. Baño, ikasten ai dizenai geyo gustatzen zaizkiobe zaharrak: Laboa, Le-

te...

► Amagar taldie zer izen da eta zer da zuretzat?

Nere biziko parte haundi bat. Lehen

"Oindik mantendu eiten da Elizkalien balkoitik balkoira hitzeite hori, ta saltsak kontatzie"

Amagar bikoa ginen, eta lengo urtetik diskue grabau genunetik Amagar taldea gera.

► Amagarren hasierak nolakuek izen zien?

Bi ezagun ginen eta elkarrekin jotzen hasi ginen. Donostiyen *Certamen de Interpretes de la Cancion*-era presentau ginen eta lehenengo sariye jaso genun. Horrek aurrea segitzen lagundu zigun.

► Lehengo urtien atea zenu-ten diskuk harrera ona izen al du?

Bai, ta oindike saltzeye. Gure betiko ilusiyue diskue ateratzie izen da. Ta ez da zeoze lortu deulako, gastuek kubritzeko lain in deu.

► Emanaldiyekin segitzen al dezue?

Ez, bestie Deban bizi da-ta, entsaiuek eiteko-ta nahiko geixki ibiltzen ginen ta momentuen utzite daukeu.

► Elizkale, elizkale, elizkaletarra zera geo zu?

Bai, bai, bertan jaio eta bertan hil.

► Zer du ba kale horrek?

Ez dakit ba, jendie. Oindik mantendu iten da elizkalien balkoitik balkoira hitzeite hori ta saltsak kontatzie. Neretzako desberdine da.

► Zezenketen aurka're gogor aritzen zera...

Bai, bai, ta urte guziyen bizirik dauket hori, ez saninaziyotan bakarrik. Taurinuen begirazunek-ta izeten die, baño alkarri errespetu osoz. ■

Nerea Uranga

Uztarriaren hiru ohar:

1. Bazkide izatea nahi baduzu, baina zure kontu korronteko zenbakia eman nahi ez baduzu, hemen daukazu UZTARRIaren zenbakia, bertan 3.000 pezeta sar ditza-zun: 2101 0029 28 0122349624 (Kutxa). Izen-abizenak eta helbidea eman.
2. Azpeititik kanpo bizi den senide edo lagun bat baduzu eta hark UZTARRIA jaso nahiko balu, bidali haren izen-abizenak helbide hauetara: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Bestela, behean ageri diren taber-neretan utzi. Edota bestela, utzi mezua 15 03 58 telefono zenbakira deituta.
3. Eman beheko datuen txartelen bat UZTARRIAN oraindik harpidedun edo bazkide egin ez den herriko senide edo lagun bati. Edozein txokotan behar du UZTARRIAK!



uztarrria

Azpeitiko herri aldizkaria

egin zaitetz harpidedun ...doan!

Bidali hona datuak: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Edo tabernatako kaxetara bota: Mendoza, Erreka, Zuhatz, Orkatz, Etxe Zuri
Izen-abizenak (etxetik batena):.....
Helbidea:

Azpeititik kanpo bizi direnak ezin dira harpidedun izan

...edo, lagundu nahi baduzu, bazkide izan zaitetzke urtean 3.000 pezeta soilik!

Bidali hona datuak: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia.
Edo tabernatako kaxetara bota: Mendoza, Erreka, Zuhatz, Orkatz, Etxe Zuri
Izena eta bi abizen:
Helbidea:
NAN (DNI):..... Sinadura:
Kontu korronteko zenbakia (20 digito):

Ikus Optika

AZPEITIAN optika berria ireki dugunez eskaintzak ditugu zuretzat. Aprobetxa itzazu!

LENTILAK: 17.500 ptz

PAREA (urte beteko garantiarekin)

PACK GAZTEA: 6 hilabetetan erabilgarria eta botatzeko lentilak, lentilak garbitzeko 3 likido pote eta opari bat: 15.900 ptz

EGUZKITARAKO BETAURREKO GRADUATUAK:
8.900 ptz



San Bartolomé, 10 • Tel.: 943 74 37 34 • 20870 ELGOIBAR • José Artetxe, 10 • Tel.: 943 15 75 74 • 20730 AZPEITIA

KALITATEZKO PAUSOA

PROZESUAREN KONTROLA ETA SEGURTASUNA

DISEINUA
ARGAZKIAK
FOTOLITORIK GABE

G R A F I C A S



INPRESIO BIKAINA

BºLandeta-Arretxe, 11 • Tel.: 943 15 75 02 • Fax: 943 81 37 98 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) • E-mail: zubi@abc.ibernet.com